boletín RSMB
BOMS Buletina
Lmentala

SAREA GARA
SOMOS RED

TAK TALDEEN JARDUNALDIA BIZKAIKO OSASUN MENTALEKO SAREAN

J.J. Uriarte

Juanjo Martínez Jambrina doktoreak, Avileseko osasun mentaleko zerbitzuburuak, eta tratamendu asertibo komunitarioko taldeak estatutan ezarri dituenak, parte hartu du jardunaldi batean Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko taldeekin.
TAK – tratamendu asertibo komunitarioko taldeek bildu eta hausnarketa bat egiteko jardunaldi bat izan zuten Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareak (BOMS) dituen lokaletan 2015eko otsailaren 20an. Jardunaldiaren helburua zen TAKeko taldekideen artean hausnarketak eta alderdi teoriko zein asistentzialak partekatzea; izan ere, bakoitzak bere eskualdean lan egiten duenez, ez du izaten esperientzia asistentziala partekatzeko aukerarik. Aukera hau are garrantzitsuagoa da, kontuan hartuta, prestazio honen gaztetasuna sareko jardueran, eta profesional berriak lanean hasi direla -azken hileotan, bereziki-, taldeak handitu ondoren.

Jardunaldian gurekin izan zen Juan Martínez Jambrina. Bera psikiatra eta zerbitzuburua da Avileseko osasun mentaleko zerbitzuetan. Estatu espainiarrean *Aviles eredua* zabaldu zuen gaixotasun mentalek jotako pertsonentzat. Eredu hori erreferente izatera heldu da TAK taldeak estatu osoan sortzeko; eta eredu horretan, hain zuzen ere, oinarritu da Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea hasieratik.

Bizkaiko lehengo TAK taldea 2008an eratu zen Zamudioko Ospitaleko Errehabilitazio Unitatean. Talde txiki batek pazientei jarraipena egiten zien euren etxeetan, ospitaleko unitatean alta jaso eta gero, eta laster ikusi zen haren eraginkortasuna. Zamudioko TAK taldeak Avilesen jaso zuen prestakuntza, eta *in situ* ezagutzeko aukera izan zuen hango taldeen eguneroko lana eta esperientzia, gerora, gurera ekartzeko. Gaur egun BOMSek 4 TAK talde ditu: bat eskualdeko: eta beste bat, gaixotasun mental larriek jotako etxerik gabekoak artatzeko Bilboko udalerrian. TAK taldeek egun 200 paziente baino gehiago artatzen dituzte.

Martínez Jambrina doktorearen aurkezpenak hasiera eman zion jardunaldiari. Horretan TAK taldeen garrantzia azpimarratu zuen Buruko Nahaste Larria duten pertsonentzat, asistentzia komunitarioaren ereduaren esparruan. Izan ere, TAK taldeak gero eta gehiago ari dira ezartzen

osasun mentaleko asistentzia sistemarik aurreratuenetan. Italian grabaturiko bideo baten laguntzarekin indar egin zuen lan egiteko modu

horren garrantzian, asistentzia eraldatzeko orduan; eta bi balore azpimarratu zituen: pazienteen etxean esku hartzea eta pertsonen inguru naturalean lan egitea komunitateko baliabideak erabiliz.



Jardunaldiaren bigarren zatian parte-hartzaile guztiek zenbait gairen inguruan eztabaidatu zuten: artatzekoak diren pazienteen soslaia, esku hartzearen mugak, pazienteen parte hartzea euren errekuperazio prozesuan, gizarteratzea, eta TAK taldeen kokapena asistentzia sarean.
Jardunaldia argazki batekin bukatu zen. Hona hemen gure lankide Monikaren laburpen grafikoa (Bera bai zalea txorimaloak marrazteko!); eta gure konpromisoa, jardunaldia, behintzat, urtean behin egiteko.